



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 4a

86. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, oinarritzko errentaren izapidetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, oinarritzko errentaren kontusaileko azken gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako landa eremuetan LTDaren eta telefonia mugikorraren estaldura ziurtatze aldera Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobieiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Ablitasko hirigunean dauden abeletxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren 2009ko Jaialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroa 2012 Planean jasotzen den ikerketa zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko obrek Bidasoa ibaian duten eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontratazio berriei eta gizarte prestazioen eskabideak igo izanaren ondorioz udalei laguntzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, etxerik gabeko edo pasadizoko pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, aurtun hasi eta 2012ra bitarte batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik naturguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko neurriak hartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, *Seguridad en la obra civil* izeneko argitalpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroaren kokapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunearen behin betiko trazadurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurreikusi duen Ledeako biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikora doan bideunerako. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko ea nola bete duen Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeak 4/1988 Foru Legeko 19.3 artikuluan ezarritakoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, kredituak eskatze aldera Nafarroako Gobernuaren abala lortu duten enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 11ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketari buruz (PES 150-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Tuterako La Atalaya zentroak laguntza espezializatuko zerbitzua eskaintzen du ezgaitasun psikiko arin eta moderatua eta jokabide konplexua duten pertsonentzat eta ezgaitasun psikiko larria eta sakona duten pertsonentzat. Honako toki hauek dauzka:

– Egoitza tokiak: egoitzako arreta eguneko 365 egunetan.

- 35 toki ezgaitasun psikiko larri eta sakona dutenentzat.

- 15 toki ezgaitasun arin eta moderatua eta jokabide konplexua daukaten pertsonentzat.

– Eguneko zentroetako tokiak: eguneko laguntza 248 egunetan.

- 16 toki ezgaitasun psikiko larri eta sakona dutenentzat.

La Atalaya zentroa, zeinaren titulartasuna Nafarroako Mendekotasun Agentziari baitagokio, AVANVIDA enpresak kudeatzen du, enpresa horrekin 2008ko apirilaren 30ean izenpetutako kontratuaren arabera.

Horri dagokionez, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak, eta zehazkiago Nafarroako Mendekotasun Agentziak, zeina kontratuaren titularra baita, ongi ezagutzen du La Atalaya zentroaren egoera, betetzen ez dituen orduen kopuruari dagokionez.

Hori dela eta, Nafarroako Mendekotasun Agentzia kontratua aldatzeko aukera aztertzen ari da.

Aldaketa hori egiten den unean, gainera, 2008rako eta 2009rako kontratuaren erregulazio ekonomikoari ekinen zaio.

Kontratua arautzen duten baldintza teknikoen pleguak berak, aipagai dugunak, aurreikusten zuen langileriaren egokitzea berrikusi eta baloratu baino lehen, bai kopuruari, bai profil profesionalari begira, urtebeteko epea behar zela, berritza eta behar beste kontrastatu gabekotzat jotzen baituzen ezgaitasun psikiko arina eta moderatua eta jokabideko konplexutasuna duten pertsonentzako unitatea.

Horri dagokionez, departamentuak erabaki du, uneoro, hitzarmena aldatzeko egoera bat adostea, zentrorako jarraipen batzorde baten bitartez. Batzorde hori Administrazioak, enpresak, zentroko langileen ordezkariak eta familietako ordezkariak osatuko dute.

Zentrorako kontratuaren berrikuspen argia eta hasieratikoa egiteko eta Nafarroako Mendekotasun Agentziak bere baliabideen onuradunak izan daitezkeen pertsonen kalitatezko arreta bermatzeko duen interesa dela eta, hemendik gutxira

aurrera eraman beharreko prozesua zehazteko modu antolatu eta adostua bilatu da. Izan ere, prozesu horren bidez izenpetutako kontratua aldatu nahi da, bai langileen aldetik, bai ematen diren zerbitzuen eta haiek ebaluatzeko sistemen aldetik ere.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 29an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako

kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, oinarrizko errentaren izapidetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du oinarrizko errentaren izapidetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 11ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak oinarrizko errenta izapidetzeari buruzko galdera egin du (PES 152-09 idatzizko galdera). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, espediente bakoitzeko 52,45 egun behar izan dira, batez beste, laguntza izapidetzeko –eskabidea jasotzen denetik prestazioa egiaz kobratzen den bitarteko denbora kontuan hartuta–.

Edozein modutan, izapidetzeko epe hori aldatu egiten da zenbait faktoreren eraginez, hala nola jasotako gizarte-informazioaren kalitate maila, beharrezkoa dena eskabidea behar bezala balioesteko, betekizunak betetzen direla frogatzeko

dokumentazioaren kasuan kasuko ekarpena, izapidetzen ari diren espedienteen kopurua, eta abar.

Inguruabar horiek guztiak eta gisako beste batzuk hartu behar dira kontuan gastu publikoa dakarren espediente bat behar bezalako zorrotasunez eta bermekin izapidetzerakoan.

Adierazitakoa gorabehera, departamentu honentzat helburu ukaezina da bateragarriak izatea aipatutako administrazio-bermeak eta edozein espediente –eta bereziki oinarrizko errentarenak– ahalik eta azkarren izapidetzea.

Hori helburu, prestazio Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia prestazioa izapidetzeko prozesuak berraztertzen ari da, ahalik eta gehien murrizte aldera izapidetzeko epeak, funts publikoen erabilerak eskatzen duen berme-esparruaren barruan betiere.

Xede horrekin, Gizarteratze Zerbitzuko plantillari bi pertsona gehituko zaizkio, bata Enpresa Zientzietako diplomatua, berehala lanean hasiko dena, eta bestea goi mailako tituluduna, Funtzio Publikoaren arloko organo eskudunek hautapen-prozesua bukatzen dutenean lanean hasiko dena.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 24an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, oinarrizko errentaren kontusaileko azken gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du oinarrizko errentaren kontusaileko azken gastuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 11ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Oinarrizko errentaren kontusaileko

azken gastuari buruz (PES 153-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Ioseba Eceolaza Latorre foru parlamentariak informazioa eskatu du "Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak" izeneko kontusailari buruz. Izan ere, kontusail horren bitartez oinarrizko errenta deitutako prestazioa finantzatzen da. Informazioa nahi du, zehazki, kontusail horri egindako gehikuntzei buruz eta haren azken gastuari buruz.

Egindako galdera jada amaituta dagoen azken aurrekontu-ekitaldiari buruzkoa dela ulertuta, amaierako gastuari erreferentzia egiten baitio, adierazi beharra daukagu 2008an zehar egindako kreditu gehikuntzak, guztira 2.915.009,86 euro egiten dutenak, honakoak izan direla:

Data	Zenbatekoa
2008-07-31	380.790,89 €
2008-07-31	119.988,97 €
2008-08-12	219.230,00 €
2008-08-28	230.000,00 €
2008-09-12	400.000,00 €
2008-09-29	165.000,00 €
2008-10-13	850.000,00 €
2008-11-28	550.000,00 €
Guztira	2.915.009,86 €

Horiei jarraituz, kontusailaren amaierako gastua 9.654.714,24 eurokoa izan zen; horietatik, % 92,03, 8.885.361,14 euro, oinarrizko errenta finantzatzeko erabili ziren eta gainerakoa presako gizarte-laguntza bereziak eta fami-

lia- eta gizarte-integraziorako laguntzak finantzatzeko.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 24an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako landa eremuetan LTDaren eta telefonia mugikorraren estaldura ziurtatze aldera Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako landa eremuetan LTDaren eta telefonia mugikorraren estaldura ziurtatze aldera Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak nolako aurreikuspenak dituen lurreko telebista digitala eta telefonia mugikorra Nafarroako zenbait aldetan hedatzeko: Orbaibarra, Pirinioak, Ameskoak, Itzagaondo eta abar (PES-164/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderan informazioa eskatzen da zenbait gai teknikori buruz (lurreko telebista digitala eta telefonia mugikorra). Dena den, gai horiei erantzun bereziak eman behar zaizkie.

Lurreko telebista digitalari dagokionez, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak 2009ko abenduaren 31 ezarri du seinale analogikoa itzaltzeko data gisa, Nafarroako kasuan eta gainerako autonomia erkidegoetan.

Galdegileak jakin nahi du, orobat, Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusia duen lurreko telebista digitalak estaldura osoa izatea Foru Komunitate osoan. Bada, hauxe da erantzuna: 2009ko abenduaren 31n Nafarroan aurreikusitako seinale

analogikoaren itzaltzea baino lehen. Horixe da Nafarroako Gobernuak Nafarroako hiri guztientzat hartu duen konpromisoa. Nafarroako Gobernuak eskura dauden bitarteko tekniko guztiak erabiliko ditu, satelite bidezko teknologia barne, Foru Komunitateko lurralde osoari estaldura emateko.

Itzagaondoan telefonia mugikorraren estaldura faltari buruzko galderari dagokionez, adierazi beharra dago Konstituzioko 149. artikulua araber, telekomunikazioak Estatuaren eskumena direla. Telefonia mugikorreko operadoreek operadore-lizentzia bat lortzen dute eta espazio irrati-elektrikoko frekuentzia-banda bat ematen zaie, haren bidez zerbitzua emateko. Hori guztia telekomunikazioen arloko eskumenak dauzkan ministerioak deitutako deialdi baten bitartez gauzatu da.

Lehiaketa horiek estalduraren gutxieneko baldintzak zehazten dituzte, bai biztanleen ehunekoari dagokionez, bai lurraldeari dagokionez ere. Behin baldintza horiek beteta, enpresa adjudikazio-hartzaileek merkatu liberalizatuan jarduten dute, eta haiek dira beren inbertsioak eta estaldura-helburuak erabakitzen dituztenak.

Nolanahi ere, baimenei buruzko eskumena (bai operatzeko, bai espazio irrati-elektrikoa erabiltzeko) eta ikuskapenatarako nahiz, kasua bada, zehapenatarako eskumena Estatuarena da, hain zuzen ere Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioarena, une honetan.

Nafarroako Gobernuak ez du inongo erantzukizunik Telefónica Móviles, Vodafone edo Orange bezalako operadore pribatuen azpiegituraren hedapenerako balizko gabezietan edo behar adina inbertsio ez egitean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 3an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-1700 eta NA-4011 errepideak hobetzeko aurreikusita dauden lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideen II. Plan Zuzendarian ez da inongo jarduerarik

aurreikusten "NA-1700, Lekunberri-Leitza" edo "NA-4011, Gorriti" tokiko errepideak erreformatzeko. Bi errepide horiek Nafarroako Errepideen Katalogoko Tokiko Sareak dituen 2.206,43 kilometrotako zati bat dira.

Bi errepide horien trafiko eskasa eta guztiz tokikoa ikusita "2009-2016 urteetarako Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendarian" ere ez da haiek erreformatzeko inolako jarduerarik aurreikusten.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak ohiko kontserbazio lanak egingen ditu bertan (zuloak estali, sastrakak kendu, garbiketa-lanak egin, pintatu, zoladura finkatu eta abar). Lan horiek ez dute inolako programazio berezirik errepideen plan zuzendarietan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobie buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobie buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du Ablitasko nekropoliari buruz (PES-154). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Zer azterketa egin ditu Nafarroako Gobernuak Ablitasen aurkitutako nekropoliari eta hilobie dagokienez?

Eremua balizatu egin zen.

Hilobiak arkeologikoki induskatu ziren, eta azalera osagarri bat ere ireki zen jakiteko ea nekropoliak jarraitutasunik ba ote zuen.

Bereizi egin ziren hilobi guztiak; 37, guztira. Aztarnak ikusita eta dituzten ezaugarriak kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuko teknikariek eraba-

ki zuten hasieran 12 hilobi zirela induskatu beharrekoak.

2. Aztarnategia edo nekropolia eta hilobiak bisigodoen garaikoak al dira?

Aztarnak aztertuta, Antzinaro amaierakotzat jo dira (K.o. VI. eta VII. mendeetakoak). Ez dago, hala ere, erabateko erreferentziarik, uste hori inongo zalantzarik gabe berretsiko duenik.

3. Nekropolitik gertu aurkitutako hiru gorpuak haren garai berekoak al dira?

Bai, nekropoli berean eginiko lurperatzeak dira, eta, beraz, ez dago zalantzarik garai berekoak direla.

4. Egin al da katalogo, artxibo edo datu eta informazio bilketarik aurkitutako nekropoliari, hilibiei eta gorpuei buruz?

Indusketa arkeologiko batean aplikatu ohi den sistematika guztia aplikatu da, ohiko estandarren arabera. Hilobi guztiak dokumentatu egin dira, eta, era berean, induskatutako 12 hilobietako giza hondakinak eta materialak bildu eta inbentariatu egin dira. Aztarnategiaren jasotze topografikoa egin da.

Halaber, aztarnategia katalogatu egin da, Nafarroako Inbentario Arkeologikoan sartzeko.

5. Zergatik estali dira berriro Ablitasen aurkitutako aztarnak?

Hilobi motak eta bertako substratu geologikoa ikusita ezinezkoa zen hilobiok aire zabalean kontserbatzea, oso erraz higituko baitziren.

6. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aztarnategia berreskuratzeko plan edo proiekturik?

Gaur egun, ez.

7. Nafarroako Gobernuak plan edo proiekturen bat prestatu badu, horren kopia bat jaso nahiko nuke.

Aurreko galderan erantzun denez, Nafarroako Gobernuak ez du halako proiekturik.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Ablitasko hirigunean dauden abeletxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Ablitasko hirigunean dauden abeletxeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Ablitasko hirigunean dauden abeletxeei buruz (PES-163/09). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Ingurumen Departamentuak ba al daki zenbat abeletxe dauden Ablitasko hirigunean?

• Bai, gaur egun, lanean ari diren abeletxeak bost dira: bi, aurrerako oiloenak; bi, oilaskoenak; eta beste bat ardi-aziendarena.

2. Departamentuak ikuskapenik egin al du indarrean dagoen araudia betetzen duten jakiteko?

• Bai. Batetik, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eta, bestetik, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak, honakoekin zerikusia duten gaietan nagusiki: Hondakinen Kudeaketa Integratuko Espainiako Plana, biosegurtasuna, abereak identifikatzeko ikuskapenak, Elikaduraren Kontrolerako Plana, abereen ongizatea eta Nekazaritzako Politika Bateratua.

3. Departamentuak ba al daki abeletxe horiek sortzen dituzten usain-arazoez eta bestelakoek zer eragin duten herrian?

- Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren artxibotetan jasota dagoenez, 2002ko urriaren 14an izan zen gai honen berri lehenbizikoz, Ablitasko zenbait bizilagunek arazook salatu zituztenean Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan.

4. Departamentuak ba al daki herritarrek salaketak edo kexak aurkeztu ote dituzten abeletxeen egoerari buruz? Salaketarik aurkeztu bada, azal begigu zein fasetan dauden.

- Bai, Ablitasko zenbait bizilagunek, 2002ko urriaren 14an, herrian zeuden zenbait abeletxe eragozpenak eragiten zizkietela salatu zuten Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan.

- Salaketen ondorioz, hiru ikuskapen-bisita egin ziren –2002ko abenduaren 11n, 2003ko otsailaren 19an eta 2003ko martxoaren 14an–; egun horietan egin zituzten abeletxeetako produkzio-prozesuetako eragiketa desatseginenak.

- 2003ko apirilaren 4an, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak txosten bat eman zuen, non ebatzi baitzuen ikuskatutako abeletxe guztietan nahitaezkoa zela zenbait neurri zuzentzaile jartzea ahalik eta txikiak izan zitezten bizilagunei eragindako eragozpenak; neurri horiekin bermatuta gelditzen zen ingurumenari dagokionez bete beharreko legezko gutxieneak.

- Hala ere, txosten berean gogorarazten zenez, jarduera sailkatuen arloan une hartan indarrean zen araubidea kontuan hartuz gero, Ablitasko Udalak bazuen eskumenik ingurumen-babeserako neurri gehigarriak jarrarazteko, aintzat hartuta, batetik, abeletxe batzuk herrigunetik oso gertu daudela eta, bestetik, arazoak sortzen direla batera egonda hirigintza-unitate berean etxebizitzetarako hiri-lurzorua eta abeltzaintzako ustiategiak; txostenean adierazi zenez, abeletxe horietakoren bat ixtea ere erabaki zezakeen udalak, baldin eta egiaztapen teknikoek beharrezkotzat jotzen bazuten.

- 2008ko maiatzaren 5ean, Ablitasko hiru bizilagunekin bilera egin zuten Nekazaritza eta Abel-

tzaintza Zuzendaritza Nagusiko eta Ingurumena-
ren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiko ordezkari-
ek; bilera hartan, bizilagunek abeletxeek eragiten
zizkieten arazoak azaldu zituzten.

5. Sepronak aurkeztu al du abeletxe horietako-
ren bati buruzko salaketarik? Hala bada, jakin nahi
dugu zein izapidetze-egoeran dauden salaketa
horiek, bai eta salaketa horien ondorioz departa-
mentuak, abeletxeak direla-eta, neurririk hartu
duen ere.

- Ingurumeneko Araubide Juridikoaren Ataleko artxiboetan begiratuta, 2006, 2007, 2008 eta 2009 urteetan ez da ageri Sepronak Ablitasko abela-
tzaintza-instalazioei buruz eginiko inongo salake-
tarik.

- Abeltzaintza Zerbitzuan ez da Sepronak egi-
niko salaketarik ageri.

Jakinarazi nahi dizut, azkenik, 2008ko maiatze-
ko bilera dela-eta –gorago aipatu dugu–, departa-
mentuak iritzi dio aldatu beharra dagoela
148/2003 Foru Dekretua, zeinaren bidez abeltzain-
tzako instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean
ingurumenaren aldetik bete beharreko baldintza
teknikoak ezarri baitziren; hain zuzen ere, lehenbi-
ziko xedapen iragankorra aldatu beharko litzateke,
non jendea bizi den guneeetatik hurbil dauden usti-
ategien jarraipena jasotzen baita.

Azterketa hau egiten aritu garelarik ikusi dugu
beharrezkoa dela xedapen iragankor hori alda-
tzea, eta, era berean, komenigarria dela arau
batean biltzea hala ingurumenaren arloko baldin-
tza teknikoak nola abereen osasun baldintzak.

Kasuko foru agindua sinatuta, hasi dira dagoe-
neko foru dekretuaren izapideak; proiektua, aurki,
honakoei igorriko zaie: elkarte profesionalei, Nafa-
rroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Osa-
sun Departamentuari.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregela-
menduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontsei-
laria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko zenbat pertsonak indartu duten Nafarroako Enplegu Zerbitzua krisiaren ondorioz izan den eskaeraren hazkundeari aurre egiteko (PES-173/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Zenbait aldiz Parlamentuari jakinarazi diodan moduan, Nafarroako Gobernuak lan merkatuan bitartekaritza egiteko zerbitzuaren egitekoa indartu

du, gaurkoa bezalako krisialdi ekonomikoaren testuinguruan.

Horri dagokionez, legebiltzarrari jakinarazi diot 2009. urtean zehar Nafarroako Enplegu Zerbitzuan Laneratzeko eta Lanerako Orientabideak emateko plan berezi bat garatuko dela. Halaber, kontratazioak sustatzeko bitartekoak ere hobetuko dira. Jarduera horiek PSNren eta Nafarroako Foru Komunitateko agente ekonomiko eta sozial garrantzitsuenen laguntza dute eta haiekin adostu dira.

Krisialdi ekonomikoko abagune honetan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak honako langileak hartu ditu bere egitura sendotzeko:

- Erdi mailako 27 teknikari eta 2 administrari laguntzaile, enplegurako prestakuntza, orientabide eta sustapen ekintzak gauzatzeko .

- Aurreikusita dago, era berean, bi hileko epean erdi mailako beste zazpi teknikari kontratazea .

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Erriberriko Antzerki Klasikoaren 2009ko Jaialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Erriberriko Antzerki Klasikoaren 2009ko Jaialdiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Erriberriko Antzerki Klasikoarekin lotutako zenbait gaiari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- AURREIKUSITAKO PROGRAMA BAKOITZAREN KOSTU ZEHATZA.

10. ingurunea

– *El sueño de una noche de verano*. Ur Teatro. Aurrekontua: 22.736 euro.

– *Las gracias mohosas*. Teatro del Velador. Aurrekontua: 7.540 euro.

– *El idiota en Versalles*. Arden Producciones. Aurrekontua: 6.496 euro.

10 Erriberrin, 400 Loperekin

– *¿De cuándo acá nos vino?* Compañía Nacional de Teatro Clásico. Aurrekontua: 19.400 euro.

– *El caballero de Olmedo*. Teatro Corsario. SEEC Kultur Ospakizunen Estatuko Elkarteak diruz lagundua.

– Proyecto La Barraca: *La hermosa fea*. SEEC Kultur Ospakizunen Estatuko Elkarteak diruz lagundua.

– *La Gatomaquia*. SEEC Kultur Ospakizunen Estatuko Elkarteak diruz lagundua.

SEEC elkarteak diruz lagundutako proiektu horietarako, 2.000 euroko erreserba egin da, muntaketaren ondoriozko balizko gastuetarako, ez produkziarako, doakoa baita jaialdirako.

Hitz magikoa

– *El príncipe despeñado*. La Nave. Aurrekontua: 4.640 euro.

Aurre-barrokoak direla eta

– *El Auto de los Reyes Magos*. Nao d'amores. Aurrekontua: 12.180 euro.

– *Las gracias mohosas*. Teatro del Velador. (Gorago adierazia)

– *Historias de Martín de Villalba*. Teatro del Norte. Aurrekontua: 4.000 euro.

– *Lorenza Malandanza*. Eugenia Manzanera. Aurrekontua: 2.900 euro.

Kalea ingurunea

– *Barroco-roll*. Azar Teatro. Aurrekontua: 4.176 euro.

– *Salvador, la marioneta gigante*. Carros de foc. Aurrekontua: 17.400 euro.

– *Nómadas*. Kanbahiota Trup. Aurrekontua: 7.540 euro.

– Antes de la función. 5.000 euro

– *Lorenza Malandanza*. Eugenia Manzanera (jada gorago adierazia dago)

– *La hermosa Fea*. Proyecto La Barraca (jada gorago adierazia dago)

– *La Gatomaquia*. Proyecto La Barraca (jada gorago adierazia dago)

Toronto's wax museum theater. Antzerkiaren izugarrikerien museoa

50.000 euroko aurrekontua.

Pertsonaiaren ardoa

Aurrekontua: 3.000 euro.

e-class.

Aurrekontua: 8.000 euro.

Jarduera osagarriak

“Ur, 20 urte” erakusketa

Itzultzeko garraioaren gastua baizik ez: 1.000 euro.

Atzera begirako erakusketa

Aurrekontua: 7.669 euro.

Pagos de Aráiz ardandegirako bisitaldia eta antzerki-entremesak

Jaialdirako batere gasturik gabe.

2.– JAIALDIKO ZUZENDARI ARTISTIKOAREN KONTRATUA

2009ko ediziorako planteatu zen jaialdiko zuzendari artistikoa “publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren” bidez kontratatzea. Honakoa izan zen lehiaketako irabazlea: Alex Ruiz Pastor.

Harekin 30.000 euroko kontratu bat sinatu zen, BEZa barne.

3.– FUNTSEZKO ALDAKETAK 2009ko PROGRAMAN.

10. ingurunea

Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdiak 10 urte bete ditu, eta datu hori nabarmenduko dugu, garai horretan antzerki egintza moduan garrantzi berezia izan zuten ikuskizunak berriz bisitatuz. Horrenbestez, orain dela 10 urte antzerki-biretan zeuden hiru muntaketa programatuko dira.

10 Erriberrin, 400 Loperekin

Aurten *El arte nuevo de hacer comedias* idatzi zeneko 400. urteurrena betetzen da, halaber. Lope de Vegaren testu hori garai hartan antzerkia idazteko moduaren erreferentea izan zen. Egileari buruzko proposamen batzuk; besteak beste, *Las huellas de La Barraca* proiektuarenak.

Hitz magikoa

Ziklo honek, zeina joan den ekitaldian hasi baitzen, antzerki klasikoaren funtsezko alderdiak hartzen ditu ardatz moduan: hitza eta aktorea. Aurten, Lope de Vegaren testua, Nafarroan girotua, lan-

tzen da, irakurgai dramatizatuaren formatua erabiliz.

Aurre-barrokoak direla eta

Barrokoaren egile handiak iritsi aurreko antzerkiaren bilakaerari buruzko errepaso historikoa. Erdi Aroko antzerkia, gorde den lehenbiziko antzerkilanarekin. Errenazimendu garaiko antzerkia, garai hartan idazle batek, Feliciano Enríquez Guzmánek, izan zuen berezitasunarekin, eta Lope de Ruedaren lan garrantzitsuenak. Azkenik, *bululú* formatua, garaiko antzerki-egituren erakusgarri gisa.

Toronto's wax museum theater. Antzerkiaren izugarrikerien museoa

Gaueko ikuskizuna, ibiltaria, Erriberriko jauregirako bereziki diseinatua. Antzerki klasikoaren eszena garrantzitsuenetan eta tragikoenetan zehar eginiko ibilaldia. Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren produkzio berekia, Linboeszena enpresarekin egina, eta Erriberriko hiri osoaren inplikazio zuzen eta estua izanzen duena.

Pertsonaiaren ardoa

Antzerkia eta ardoa. Eszena zuzendari batek bere funtzioko pertsonaia definitzen du, eta ardo batekin duen korrespondentzia esploratzen dugu. Entzutea eta dastatzea. Eszena zuzendaritzaren lengoaiaren eta ardoaren lengoaiaren arteko loturak deskubritzea, ikuspegi sinboliko, poetiko eta teatraletik.

e-class. (Arte dramatikoko goi mailako eskolen lehenengo topaketa, klasikoei buruzkoa)

Jaialdiaren jarduera-ildo berri bat. Elkarren arteko trukerako eta erakusketarako plataforma berria. Arte Dramatikoko eskolek karrera amaierako beren proiektuak, klasikoekin lotutako ikuskizunak,

erakutsiko dituzte. Erriberri etorkizuneko aktoreen, antzerki irakaskuntzako zentron eta ikusentzuleen topagune eta gogoetarako gune gisa. Erreferentzia gune berria antzerki klasikoaren panoraman.

Jarduera osagarriak

“Ur, 20 urte” erakusketa

Konpainia garrantzitsu honen ibilbidea jasotzen duen erakusketa da. Ur konpainia, gainera, aurtten bere erreferentziako ikuskizunarekin etorriko da.

4.– LA CAVA-ko IKUSKIZUNAK GUTXITZEARREN ZERGATIA.

Erriberriko jaialdiaren gastu handienetako bat La Cava-ko eremu eszenikoa alokatu eta muntatzea da. Aurtengo aurrekontua txikiagoa denez, nahiago izan dugu eremu horretako emanaldien kopurua gutxitu, eta horrek nabarmentzeko moduko onura ekarri du alokairuko eta muntaketako gastuari dagokionez. Aitzitik, proposamen eta jardueren kopurua handitu da; esate baterako, arte dramatikoko goi mailako eskolen topaketa edo jaialdiaren agertoki pribilegiatua den Erriberriko Gazteluko aretoak edo Erriberriko kaleak berak ere gehiago erabiltzea –izan ere, aire libreko ekitaldien kopurua handitu da, eta horrek bidea ematen du jaialdira bertaratuek eta Erriberriko biztanlek berek ere gehiago parte hartzeko–.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroa 2012 Planean jasotzen den ikerketa zentroari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroa 2012 Planean jasotzen den ikerketa zentroari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroa 2012 Planean jasotzen den ikerketa zentroari buruz (PES-179/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak, 2007ko azaroan, Ikerketa Biomedikoaren Plan Estrategikoa onetsi zuen. Hartan, izan ere, 7 jarduketa-ardatz identifikatu ziren. Haren helburua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ikerketa hobetzea da.

Ikerketaren arloko langileei dagokienez, parlamentari andreari ahaztu zaizkio bere jardueraren

zati bat ikerketa lanetan ematen duten sorospen-profesionalak. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentro eta unitate guztietan ikerketataldeak daude, eta nabarmentzekoak dira Bideko Ama Birjina Ospitalekoak, adimen osasunaren arloan dihardutenak, Nafarroako Ospitalekoak eta Nafarroako Osasun Publikoaren Institutukoak. Horietako batzuek ospe handia dute nazioan eta nazioartean.

Ikerketa lanetan guztiz diharduten langileei dagokienez, 20 pertsona dira. Ikerlari berrien atxikipena, berriz, pixkanaka egingen da, egungo ikerketa-ildoak zabaltzen doazen neurrian. Horrenbestez, ezin dugu eman Ikerketa Biomedikoko Zentro berrian lan egingen duten oinarriko ikerlarien eta ikerlari teknikoek kopuru zehatza.

Azkenik, laguntza metodologikoari eta kudeaketaren arloko laguntzari dagokienez, ikerketarako kudeaketaren arloko zuzendariaren lanpostua sortu da, 2008ko irailean esleitutakoa, eta eskarmentua duten metodologia arloko bi aditu hautatu dira, 2009ko irailean lanean hasiko direnak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, N-121-A errepideko obrek Bidasoa ibaian duten eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Koldo Amezketa Díaz jaunak galdera egin du N-121-A errepideko obrek Bidasoa ibaian duten eraginari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak galdera egin du N-121-A errepideko obrek izan ditzaketan ondorioei buruz, Bidasoa ibaiaren balizko uhaldiak direla-eta. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

– Lanak 2007ko udaberriak adjudikatu zirenetik, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Ingurumena Babesteko Atala lan horietarako ingurumen arloko laguntza teknikoa eta haien jarraipena egiten aritu da, ingurumenaren gaineko eraginaren kasuko deklarazioetan jasotakoa betetzen dela zaintze aldera.

Lanetako hiru tarteak maiz bisitatzen dira (astean bisita bat, gutxienez ere) eta egindako bisiten ondorioz, oso maiz, idatzizko eskariak egiten zaizkie kontratistei, obra zuzendarien bitartez, ingurumen arloko alderdiak bete daitezzen.

Gainera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan ingurumenean eragina izan

eta ikuspuntu horretatik garrantzia duten proiektuko aldaketa guztiak izapidetzen dira, bai eta obrak egiten ari diren bitartean sortu eta ingurumenean eragina duten jarduera berriak ere. Aurreko guztia ingurumenaren arloko jarraipena egiteko aldizkako txostenetan laburbiltzen da.

– 2009ko maiatzaren 26an, Ingurumen Babeserako Atalaren tostena igorri nizuen. Bertan, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin batera hartutako erabakiak aipatzen dira, haiek hiru tarteretan betetzeko, bai eta erabaki horiek betetzeko enpresei igorritako jarraibideak ere. Dokumentu horien kopia erantsi da.

– Aipatu den bezala, afekzioen eta haien zuzentzearen jarraipena egiten dugu: Las Nazas-ko uharkako izokinenzako mailadia, ibai-arroan Carex cespitosaren jarraipena egitea, kiropteroen populazioei buruzko azterlanak, landareztatze eta ereite hidraulikoko lanak kontrolatzea, faunaren pasabideen exekuzioa kontrolatzea eta abar.

Udalei kobren ingurumenaren arloko jarraipenari buruzko informazioa emanen zaie.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00177 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontratazio berriei eta gizarte prestazioen eskabideak igo izanaren ondorioz udalei laguntzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Gizarte Gaietarako Departamentuaren kontratazio berriei eta gizarte prestazioen eskabideak igo izanaren ondorioz udalei laguntzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du gizarte-prestazioen eskariak gora egiteari aurre egiteko langile gehiago hartzeari buruz (PES 171-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehenbizi, eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren beraren plantillari dagokionez, adierazi behar dugu ekainaren 30eko 78/2008 Foru Dekretuaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla aldatu zela.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mende-kotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea eta gizarte-zerbitzu orokorren zorroa onartzeak aldaketa handia eragin du gizarte-zerbitzuetako sistema publikoaren prestazioetan. Hala, 78/2008 Foru Dekretuaren helburua zen, bere zioetan azaldu bezala, aldaketa horri aurre egiteko Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaietako Departamentua beharrezko lanpostuez hornitzea, eta, horretarako, hainbat plaza sortu dira, bai eta, arrazoi bera dela medio, aurretik zeuden egiturazko lanpostuak sendotu ere.

Azken batean, dekretuak suposatu zuen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko plantillak gora egitea, eta zehazki gizarte gaietakok arloan zuzenean inplikaturiko organoek, 37 lanpostutan. Lanpostu horiek urte honetan

zehar betetzen joan dira, behin funtzio publikoaren arloko organo eskudunek hautapen prozedurak amaitu ondoren.

Plantillaren handitze horrekin, departamentuak aurre egin nahi die gizarte arloko prestazioen eskarian izandako hazkundeari.

Bestalde, prestazioen handitze horrek oinarrizko gizarte zerbitzuen langileen premian izan dezakeen eraginari dagokionez, aipatu beharra dago Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte gaietako Departamentuak ongi dakiela kasu jakin batzuetan prestazioen eskarietan gorakada handia gertatu dela. Egoera horri konponbidea emateko –aldi baterako egoera izanen dela jakinda–, gaia Krisi Ekonomikoari aurre egiteko Gizarte Laneko Taldean planteatu zen.

Bileraren ondorioz, harremanak izan ditugu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateen mintzakide baliagarritzat hartuta, bai eta oinarrizko gizarte zerbitzuekin beraiekin ere edo/eta haien arduradun politikoekin, premia handieneko gaiei lehentasuna emateko, antolaketan aldaketak egite eta abarretarako, betiere oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzaren egoeraren eta premien arabera. Horri dagokionez, atzeman da zerbitzuetan gero eta lan metaketa txikiagoa dagoela.

Gainera, prestazio batzuk izapidetzeko aukerako beste bide batzuk bilatzen ari dira, oinarrizko zerbitzuetan lehen laguntzako laneko erritmo normala berreskuratu ahal izateko.

Azkenik, esan beharra dago departamentuak ongi dakiela oinarrizko gizarte zerbitzuetan itxaron zerrendak daudela, eta kasu jakin batzuetan baino ez direla hausten bermatutako prestazioetarako zorroan ezarritako epeak; esate baterako, sistema-ko beste prestazio batzuetako eskabideen izapide-tzean.

Eskariaren handitze hori gehien bat biztanle asko metatzen diren esparruetan gertatzen da; izan ere, haietan, ekonomia neurri handiagoan dago sektore industrialaren menpean eta harekin loturiko beste sektore batzuen menpean, horiexek baitira krisi ekonomikoaren eragina gehien nozitzen ari direnak. Eskarien hazkunde handiena oinarrizko errentaren arloan gertatu da. Alderdi horretan, izan ere, lanean ari gara une honetan,

alde batetik eskarien metaketa handi dadin saihesteko, eta, bestetik, zuzenean krisiaren ondorioz oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonak egoera horretan ahal den denbora gutxien eman dezaten.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, etxerik gabeko edo pasadizoko pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du etxerik gabeko edo pasadizoko pertsonen buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du etxerik gabeko edo pasadizoko pertsonen buruz (PES 172-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Galdera horri dagokionez, hasteko, zehaztapen bat egin behar da: Ez da zuzena, gure ustez, nahastea, galderan egiten den moduan, "etxerik gabeko pertsonak" eta "pasadizoko pertsonak".

"Etxerik gabe pertsonak" dira ostatu hartzeko leku egokirik ez duten pertsonak; fenomeno horrek zerikusia ere badu nork bere burua gobernatzeko gaitasunarekin eta abar.

"Pasadizoko pertsonak", berriz, aurreko gabeziak izateaz gain, batetik bestera ibiltzen dira, hala ere moduz non leku batean aldi baterako bakarrik egoten baitira. Hori dela eta, zaila da gizarte-erlortze esku-hartze integral bat egitea; oinarritzko beharretarako laguntza besterik ez zaie ematen.

Hori esanda, adierazi behar da ez dagoela fenomenoaren definizio zehatzik, ezta etxerik gabeko pertsonen eroldarik ere, eta, beraz, zaila da zenbat diren jakitea. Nafarroan gutxi gorabehera zenbat "etxerik gabeko" dauden jakiteko, Esta-

tistikako Institutu Nazionalak Estatuari buruz dituen datuak erabil daitezke; hala, proportzionalki, 296 pertsona dagozkioke Nafarroari. Erreferentzia gisa hartzen baditugu EUSTATEk euskal autonomia erkidegoari buruz dituen datuak, Nafarroan 284 pertsona egon daitezke egoera horretan. Ostatu emateko ditugun baliabide ugariak kontuan hartuta –aterpetxeak, ostatuak, egoitzak...–, Nafarroan, egunean 184 pertsonari eman ohi zaio, batez beste, era horretako laguntza.

Etxerik gabeko pertsonentzako laguntza (ostatu alternatiboaren atalean) oinarritzko gizarte-zerbitzuek eman behar dute, udal-eskumenekoak baitira, eta finantzaketak Nafarroako Gobernuarena behar du. Gizarte Zerbitzuen Zorroan bermatuta ageri da "etxerik gabeko pertsonak hartzea", eta oinarritzko eskualdea jotzen da jarduteko eremu gisa.

Edozein modutan, gogoratu behar da Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan –Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsi zuen, 2008ko abenduaren 17an; 2009ko otsailaren 19an argitaratu zen Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean–, 2. ildo estrategikoan hain zuzen –lehentasunezko arreta beharrrak–, eta, zehazkiago, 2.1 jarduketan, jasota dagoela pasadizokoentzako aterpeak eraikitze edo berritze laguntzak ematea Nafarroako lau herritan: Iruñean, Altsasun, Tuteran eta Lizarran.

Horretarako, 2009ko ekitaldirako gastuen aurrekontuetan –Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legearen bidez onetsi ziren–, bada kontusail bat, hasierako kreditua 200.000 eurokoa duena, pasadizokoentzako aterpeetan, Altsasun eta Iruñean hain zuzen, inbertsioak egitera bideratutako transferentzietarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria María Isabel García Malo

Galdera, aurten hasi eta 2012ra bitarte batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du aurten hasi eta 2012ra bitarte batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du aurten hasi eta 2012ra bitarte bata-

sunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopuruari buruz (PES-175/09). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ondoko taulan ageri da eskatutako informazioa, hau da, aurten hasi eta 2012ra bitarte batasunaren intereseko lekuak kudeatzeko plan bakoitzerako aurreikusitako diru kopurua. Adierazi beharra dago kostuak zenbait faktoreren arabera aurreikusita daudela; besteak beste, honakoen arabera: lekuaren azalera, duen ingurumen-komplexutasuna eta parte hartzeko behar den prozesua. Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 12an.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Kod.	KODE OF.	ESKUALDEA	IZENDAP. OF.	2009	2010	2011	2012
L-01	ES0000123	Alpinoa	LARRA-AZTAPARRETA	12.000			Kostuaren gainerako 2008ri dagokio
L-02	ES2200009	Alpina	LARRONDO-LAKARTXELA	12.000			Kostuaren gainerako 2008ri dagokio
L-04	ES2200027	Alpinoa-Mediterraneo	ESKA ETA BINIES IBAIAK	30.000			
L-05	ES2200012	Alpinoa-Mediterraneo	ZARAITZU IBAIA	35.000			
L-06	ES2200025	Alpinoa-Mediterraneo	IRATI, URROBI ETA ERRO IBAIEN IBAI-SISTEMA	56.000			
L-12	ES2200010	Atlantikoa	ARTIKUTZA	35.000	46.000		
L-13	ES2200014	Atlantikoa	BIDASOA IBAIA		30.000		
L-15	ES2200023	Atlantikoa	ARTESIAGAKO ERREKAREN AHOA	20.000			
L-16	ES2200020	Atlantikoa-Mediterraneo	ARALAR MENDIA	85.000	90.000		
L-18	ES2200024	Atlantikoa-Mediterraneo	EGA-UREDERRA IBAIAK		35.000		
L-19	ES2200022	Atlantikoa-Mediterraneo	LOKIZ	50.000	115.000		
L-20	ES0000130	Mediterraneo	ARRIGORRIETA ETA EZKAURRE MENDIA	95.000			
L-21	ES0000128	Mediterraneo	SAN MIGEL MENDILERROA		62.000		
L-22	ES0000132	Mediterraneo	ARABARKO		35.000		
L-23	ES0000129	Mediterraneo	ARTXUGA, ZARIKIETA ETA ARETAKO MENDIAK	80.000	103.000		
L-25	ES0000127	Mediterraneo	IZAGA MENDIA			52.000	
L-26	ES0000124	Mediterraneo	ILLON, BURGIKO ARROILA			37.000	38.000
L-27	ES0000125	Mediterraneo	LEIRE, ARBAIUNGO ARROILA			70.000	70.000
L-28	ES2200013	Mediterraneo	ARETA IBAIA		30.000		
L-29	ES2200030	Mediterraneo	ARAGON IBAIAREN ERDIKO TARTEA	57.000			
L-31	ES2200033	Mediterraneo	EL JUNCAL AINTZIRA			20.000	
L-32	ES0000133	Mediterraneo	PITILLASKO AINTZIRA				
L-33	ES0000135	Mediterraneo	BI ERRESUMEN URMAELA			25.000	
L-34	ES0000134	Mediterraneo	LAS CAÑAS URTEGIA				
L-35	ES2200039	Mediterraneo	BADINA ESCUDERA			25.000	
L-36	ES2200041	Mediterraneo	EL PULGUER BALTSA			25.000	
L-37	ES2200035	Mediterraneo	ARAGOI ETA ARGA IBAIEN BEHEKO TARTEAK			43.000	
L-38	ES2200040	Mediterraneo	EBRO IBAIA			43.000	
L-39	ES2200029	Mediterraneo	KODES			70.000	50.000
L-40	ES2200031	Mediterraneo	LIZARRAKO ERRIBERAKO IGELTSUAK			42.000	60.000
L-41	ES2200037	Mediterraneo	ERREGE BARDEA			100.000	100.000

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik naturguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko neurriak hartzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik naturguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko neurriak hartzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteari atxikitako Ion Erro Armendáriz foru parlamentari jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik naturguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko neurriak hartzeko (PES-179). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna: foru arauak, oro har, guztiz debekatzen dute ibilgailu motordunekin bideetatik kanpo zirkulatzea. Horrek esan nahi du arau hori aplikatzekoa dela naturguneetan ez ezik, Nafarroako edozein oihan-lurzorutan ere. Argitu beharra dago natur landarediak (belarra, zuhaixkak nahiz zuhaitzak izan) okupatutako edozein landa-lurzoru oihan-lurzorutzat hartzen dela. Horri dagokionez,

bada, ez dago arau berririk ezarri beharrik: nahikoa da lehendik daudenak betetzea. Horrenbestez, bai Landa Garapeneko eta Ingurumeneko basozaintzak, bai Foruzaingoak eta SEPRONAK ere, ingurumenaren arloko arau horien betetzea zaintzen dute. Besterik da eragindako kaltearen larritasuna; horrek, argi dago, lotura hertsia du arau-haustea gertatu den tokiarekin. Adierazitako zaintza-lana Administrazioak bere kabuz egiten du, eta ezin da uneoro eta toki guztietan bermatu arauak beteko direnik. Hala eta guztiz ere, ikuskapen lana hirugarrenek eskatuta ere egiten da, herritarren batek salaketa bat aurkezten duenean. Eremu horien kontserbazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, babes-arauen betetzea zainitzeaz gainera, adierazi bezala, kudeaketa lana ere egiten du. Lan horrek kudeaketa planetatik hasi (esate baterako, Ablitasko Peñadil, Montecillo eta Monterrey kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko plana) eta babestutako espezieen inbentario eta jarraipenera bitarte, tartean habitata leheneratzeko eta hobetzeko jarduerak direla (El Pulguer hezegunea leheneratzea, aipatutako kontserbazio bereziko eremuko errekek berreskuratzea eta abar).

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, *Seguridad en la obra civil* izeneko argitalpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du *Seguridad en la obra civil* izeneko argitalpenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 29ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Paula Kasares Corrales andreak

galdera egin du jakiteko zer hizkuntzatan argitaratu dituen Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak *Seguridad en la obra civil* izeneko bilduma (PES-181/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren “Etorkinentzako programa” izenekoaren barruan, laneko arriskuen prebentziorako dibulgazio-materialak argitaratzea dago, etorkinek ohikoen dituzten hizkuntzetan. Hori horrela, *Seguridad en la obra civil* argitalpeneko 8 esku-orriak honako hizkuntzetara itzuli dira: frantsesera, portuguesera eta arabierara.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, *Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroaren kokapenari buruzkoa.*

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du *Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroaren kokapenari buruz.*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea Iruñean eraikiko den *Donejakue Bidearen Ikasketen Zentroa* eta ea Nafarroako Gobernuak kontuan hartuko duen zer adierazi duten Lizarrako Mendialdeko gizarte mugimenduek (PES 169). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

1.- *Donejakue Bideari buruzko departamentu-arte*ko plan orokorrak –joan den apirilaren 28an aurkeztu zen Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean– bere baitan biltzen ditu, garapen-proiektuen eta –ekintzen barruan, *Donejakue Bidearen Interpretazio eta Ikasketen Zentroa* sortzea.

Zehazki, *Bideko Ikasketen Zentroaren* proiektua A.8. ekintza moduan jasota dago (Planeko 149. orrialdea), helburu jakin batekin: “*Bideari buruzko agiri-funtsak integratu eta interpretaziorako eta ikasketetarako esparru bat sortzea.*”

Kasuko fitxaren edukiari erreparatuta, proiektua “*Bideari buruzko interpretazio, erakusketa eta dokumentazio zentro bat sortzean*” datza, eta aldi berean, “bertan, *Bideari buruzko adituen bilerak eta jardunaldi profesionalak egin litezke.*”

Proiektuaren kronogramak 2010, 2011 eta 2012 urteak hartzen ditu.

Ez planak, ez A.8. ekintzak ez dute ezertarako ere zehazten etorkizuneko zentroaren kokapena. Erabakia etorkizunean hartuko da, behin dauden

aukerak xehetasunez aztertu ondoren eta Donejakue Bideko lagunen elkartearen, gaiarekin lotutako entitate eta erakundearen, parlamentu-taldearen eta abarren gogoetak eta iritziak baloratu ondoren.

2.- Bai Lizarrako Udala, bai hiriko Donejakue Bideko Lagunen Elkartek badakite ez dela inolako erabakirik hartu eta planeko dokumentuak ez duela zehazten zentroa non kokatuko den.

2009ko maiatzaren 5ean, horri buruzko gutun bana igorri zitzaizkien Lizarrako alkateari eta hiriko

Donejakue Bideko Lagunen Elkarteko lehendakariari.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 19an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunearen behin betiko trazadurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunearen behin betiko trazadurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Pirinioetako Autobiaren eta Zangozaren arteko lotunearen behin betiko trazadurari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera, "A-21 Pirinioetako Autobia, 4. bideunea: Judasen Benta-Esa" trazaduraren plan-taren planoak igortzen dizut, 1:15.000 eskalan. Bertan, Ledea 1 eta Ledea 2 deituriko lotuneak ageri dira, onetsitako aurreproiektuan zehaztu diren moduan.

Bi lotune horien 1:4.000 eskalako plantak ere erantsi ditugu. Ledea 1 lotunea da Zangozari Iruñearekiko harremanetarako zerbitzua emanen diona.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 16an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentariaren eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurreikusi duen Ledeako biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikorako doan bideunerako.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurreikusi duen Ledeako biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikorako doan bideunerako.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak jarduketarik aurrei-

kusi duen Ledeako biribilgunetik Zangozako azpiestazio elektrikorako doan bideunerako. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

2002-2009 urteetarako Errepide Plan Zuzendarian ez da inolako jarduerarik aurreikusi NA-127 errepidean, hain zuzen ere Ledeako biribilgunetik hasi eta Zangozako azpiestazio elektrikorako doan tartean. Hala eta guztiz ere, aurreikusita dago Rocarforteko industrialdea garatzeko lanen esparruan, NA-127 errepidearekiko elkargunea hobetzea, hura biribilgune itxi bihurtzeko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko ekainaren 16an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko ea nola bete duen Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeak 4/1988 Foru Legeko 19.3 artikuluan ezarritakoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko ea nola bete duen Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeak 4/1988 Foru Legeko 19.3 artikuluan ezarritakoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Oztopo Fisikoen eta Zentzumen Oztopoen Departamentu arteko Batzordeari buruz (PES 168-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Ekainaren 11ko 4/1988 Foru Legeak, 19.3 artikuluan, zenbait eginkizun esleitzen dizkio artikuluan bertan aurreikusitako departamentu arteko batzordeari. Aipatutako batzordea ez da azken garai hauetan bildu, aurreko erantzunetan jakitera emandakoaren arabera.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da irisgarritasunaren kontzeptuan eta arlo horri buruzko arauetan azken urteetan aldaketa garrantzitsuak izan direla, eta horien ondorioz gaur egungo kontzeptuen arabera zentzurik ez duten egiturak berrikusi behar direla.

Horri dagokionez, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Nafarroako Ezgaitasunaren Kontseiluaren sorrera bultzatu nahi du. Kontseilu horrek irisgarritasunaren gaia ikuspegi orokorrago batetik landuko luke, halako moduan non galderan aipatzen diren eginkizun horiek, nolabait ere, organo horrek hartuko lituzkeen bere gain.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da aipatutako 19.3 artikuluan aipatutako eginkizunak ezin direla, inolaz ere, galderan aipatzen den departamentu arteko batzordearen eginkizun eskusibotzat hartu.

Horrela, betebeharra duten entitate eta pertsonen arauak bete ditzaten sustatzea eta haiei aholkua ematea Administrazioaren eginkizun orokorrak dira.

Beste hainbeste esan daiteke aurrerapen teknikoan azterlanari buruz eta legearen edukiak berrikusteari buruz, behar diren aldaketak proposatu ahal izateko.

Horiek guztiak, adierazi bezala, Administrazioaren eginkizun orokorrak dira, arlo bakoitzean eskudunak diren organoen bitartez Administrazioak bere gain hartzen dituenak, alde batera utzita aipatutako arauak aurreikusitako batzordeari egiten dion atribuzioa.

Iruñean, 2009ko ekainaren 20an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, kredituak eskatze aldera Nafarroako Gobernuaren abala lortu duten enpresei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du kredituak eskatze aldera Nafarroako Gobernuaren abala lortu duten enpresei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du kredituak eskatze aldera Nafarroako Gobernuaren abala, Nafinco sozietate publikoaren bitartez emana, lortu duten enpresei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Eskatutako informazioa babestuta dago, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legean ezarritakoari jarraituz. Horrenbestez, ez da bidezkoa informazio publikoa ematea espediente administratibo partikular bati buruz.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

